

iñaki olazabal

"2014"

BERGARA 2014. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Abuztuaren 14tik irailaren 7ra • Del 14 de agosto al 7 de septiembre

IÑAKI OLAZABAL

Iñakiren eskulturak beti formetara jotzen du, eskulturari buruz hitz egiten ari garenean horrelako zerbait esateak tontakeria badirudi ere. Eskulturaren oinarrietako bat forma da eta horregatik ez litzake beharrezkoa izango hasierako esaldia.

Baina bere eskultura, instalazioan zabaldu den momentuan eta espazioa eszena toki bihurtu denean, formari buruzko hausnarketa bitxi samarra dela gaur egungo eskulturan. Hala ere, formen gainean lan egitea beti izango da artearen zeregina joera informalistei gustatu ez arren.

Iñakiren eskulturetan azaltzen diren formak behin eta berriz burura etortzen zaizkigunak dira, hau da, telefonoz hitz egiten ari garenean boligrafoekin paper gainean egiten ditugunen antzekoak, edo ezertan pentsatzen ahalegintzen garenean gure eskuak egiten dituen zirriborroak.

Gehienetan ez dakigu zeren antza duten eta behin ere ez dakigu zergatik egin ditugun, baina hor daude eta egin ondoren errealitatearekin lotu beharra etortzen zaigu burura, horregatik ahalegindu gara gure inguruan dauden gauzen antza bilatzen. Eskultura batek guri begira dagoen begi hendidun buruaren forma izango du, beste zerbaitek zuhaitz forma duen gizakia. Ez da batere arraroa natura eta gizakiarekin harremana bilatzea, ondoan ezagutzen dugun errealitatea baita.

Hemen ikusten dugu formaren kontrako borroka. Lanak banan-banan begiratzuz gero, azareak eta egilearen ekintza ez guztiz kontrolatuak sortzen dituen orbanak, marrak, itzalak eta koloreak bolumenen kontrako iraultza dirudite. Horregatik ezin dugu lana begirada azkar baten bidez harrapatu. Sortzen diren arteko harremanak espazioan konposaketak antolatzeke erabiltzen ditu, erakusketaren espazioa betetzeko alegia. Ondoren lan bakoitzaren behaketa etorriko da eta bertan sumatuko ditugu artistak landutako zehaztasunak.

Bi ekintzak, formala eta piktorkoagoa dena, jatorri berberetik datoz, artistaren eskua dago bietan, bat forma ia automatikoak sortzen eta bestea gainazala sortzen.

Ismael Manterola Ispizua.
Galeria MPA (azas con bertas).

ERAKUSKETA **EXPOSICIÓN**
Iñaki Olazabal

ANTOLATZAILEA **ORGANIZADOR**
Bergarako Udala **Ayuntamiento de Bergara**

INPRIMAKETA-EDIZIOA **IMPRESIÓN-EDICIÓN**
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA **EDICIÓN**
Bergarako Udala **Ayuntamiento de Bergara**

LEGE GORDAILUA **DEPÓSITO LEGAL**
SS-1007-2014



0913 GEO
Zinka eta egurra margotuta
45 x 70 x 17 cm



0713 GEO
Zinka eta egurra margotuta
28 x 53 x 18 cm




1113 GEO 2
Zinka eta egurra margotuta
45 x 37 x 12 cm



0814 GEO
Zinka eta egurra margotuta
23 x 32 x 22 cm



1013 GEO 5
Zinka eta egurra margotuta
43 x 23 x 10 cm





0114 IM
Zinka eta oihal plastikoa
2 x 6 x 2 m



0914 GEO 2
Zinka
40 x 34 x 36 cm



0314 GEO
Zinka
30 x 30 x 10 cm



1208 M 2
Zinka
50 x 40 x 36 cm

IÑAKI OLAZABAL

(Andoain, 1959)

www.olazabal-escultura.es
inakiolazabaleceiza@gmail.com
© 34 688 630 968

FORMAZIOA

- 1983-1985** Sorabillako lantegia. Andoain.
- 1986-1990** Arteleku. Donostia.
- 1991-1993** Kuntsakademie Düsseldorf. Alemania.

ERAKUSKETAK

Ikusi informazioa web orri honetan:
www.olazabal-escultura.es



ARTELANAK TOKI HAUETAN

- ARTIUM. Ipiña Bidaurreazagabilduma. Gasteiz.
- KUTXA. Oria ibaia.
- Gipuzkoako Batzar Nagusiak.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Angeluko udal bilduma. Beatrix-Enea Museoa.
- Alacanteko Diputazioaren bilduma.
- Nautilus Lanzarote.
- Itzal-Aktiboa bilduma. Donibane Garazi.
- Oria ibaia. Zegama, Ordizia, Ikaztegieta, Tolosa, Andoain, Zubieta, Orio.
- Alcobendaseko udal bilduma.
- Zumaiako udal bilduma.
- Arte plastikoen bilduma. Gasteiz.

1014 GEO
Zinka
55 x 60 x 13 cm

Bilduma pribatu ugarietan ditu artelanak, Euskal Herrian, Espainian, Frantzia eta Alemanian.

iñaki olazabal

"2014"

Ordutegia:

asteartetik ostiralera
larunbatetan

18:00 - 20:30

12:00 - 14:00

18:00 - 20:30

igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00



AROTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala